


# noaua

**Oiana Blancok  
ez du judo Taldean  
jarraituko**

**San Praxka jaietako  
gehigarri berezia**

**Ale honekin batera,  
tren-bus ordutegi  
berria opari**



**“Gure bide galduak”**

**70etako urte ilunen inguruko antzezlan ederra**

AGINAGAKO ESKOLAKO IKASLE  
ETA IRAKASLEEK SAN PRAIKKU  
JAI ONAK OPA DIZKIZUETE.

ONDO PASA JAIETAN!!



Ordutegi gehiago eskuratu nahi  
badituzu, hemen aurkituko  
dituzu:

·NOAUA! ·Udaletxea ·Kiroldegia  
·Saizar ·Aliprox ·Aginagako  
Arrate taberna ·Zubietako  
Alamandegi taberna

tren eta autobus

noaUA

ordutegia 12/13

UNEGIN

KILOMETROAK 2012 ANDOAIN  
AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA

kilometroak jaiak behar zaitu

2012ko urriaren 7an lagundu nahi baduzu  
hiru aukera dituzu izena emateko:



kilometroak.net web orria  
kmk12.gizabaliabideak@ikastola.net  
tel.: 688 608 825



ikastolenelkartea

## Albiste iruditan

# Trukerako aukera zabala

**B**osgarrenez ospatu zen igandean Truke Azoka, Txokoalden ez, oraingoan Usurbilgo Gaztetxean. Eraikinaren barrualdean, aurreko edizioetan baino postu kopuru handiagoetan barrena osteratxo egiteko aukera zegoen. Baita noski, nahi zuenak erakusgai zuena trukatzeko tratu ere ibili zen.

Akordio bat baino gehiago adostu zen Trukalariak taldekoek antolatutako ekimenaren baitan. Gehienbat postuak jarririk zituztenen artean trukatu ziren gaiak. Baina izan zen, etxetik eskutan eramandakoa trukatu zuenik ere.



Pasa den igandean egin zen azoka, gaztetxean.

## Laburrean

### Dantza Taldeko ordutegiak finkatzeko bilera deitu dute

Ostiral honetan, irailak 28, ikasturteko ordutegiak finkatzeko bilera deitu dute. Agerialdeko gimnasioan elkartuko dira, 16:30ean. Informazio gehiago jasotzeko: [dantzataldea@usurbil.com](mailto:dantzataldea@usurbil.com)

### Jokin Errastiren eskulan erakusketa Sutegin

Hamar urte daramatza kartzelan. Errastik berak espetxean sorturiko eskulanak ikusgai izango dira Sutegin asteburu honetan. Ostiralean, 19:00-21:00. Larunbatean, 12:00-14:00 / 19:00-21:00.

### Antzerki Txiki taldearen deialdia

4-16 urte bitarteko gaztetxoek taldean parte-hartzeko aukera dute. Izen-ematea hilabete honen amaiera bitarte egongo da zabalik: [antzerkitxiki@gmail.com](mailto:antzerkitxiki@gmail.com)

# noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaia.com](mailto:elkartea@noaia.com) // [www.noaia.com](http://www.noaia.com)

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Uuskal pruzoak




Uuskal Herrira!

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.  
**Aldizkari koordinatorazalea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,  
[publizitatea@noaia.com](mailto:publizitatea@noaia.com).  
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
[erredakzioa@noaia.com](mailto:erredakzioa@noaia.com):  
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,  
Aizpea Aizpurua.  
**Banaketa:** Aloña Esnaola,  
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.  
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Errazkin S.L.**  
igeltzeritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
[errazkinsl@euskalnet.net](mailto:errazkinsl@euskalnet.net)  
Oztaran auzoa 33, URNIETA

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltzeritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65



Luis Aranalde

## Joko Paralinpikoak

**A**maitu berri diren Paralinpiar Jokoetan guztiz murgilduta ibili naizazken bolada hone-tan. Pasa den larunbatean ere futbolearen paralinpiarra izandako Aitzol Arzallus donostiarraren ezkontza zuzentzeko aukera izan dut. Idoia da bere emazte xarmanta. Aitzolek Sidney eta Atlantant parte hartu zuen. Ikasle izan nuen gure ikastolan estudiatu zuenean.

Gizarteak zerbaitetan aurrera pauso erraldoirik eman badu, ezin du mota guztiekiko begirunean eta laguntzan izan da. Ni gogoratzen naiz nire herrian, adibidez, duela 60 bat urte era honetako pertsonak ia inoiz ez zituztela etetik ateratzen. Alde batetik lotsa gisako sentipenak eraginda eta bestetik orain bezalako laguntzarik ez zutelako jasotzen erakunde publikoetatik.

Gizakia gizakienez geroztik ezintasunaren gai honen aurrean gizarteak jarrera oso ezberdinak agertu ditu. Gehienetan hil egiten zituzten, edo abandonatu edo ezkutatu. Olinpoko jaingo eta jainkosek ere ezinduekiko jokaera oso ezberdinak izan zituzten: Hefesto, Zeus eta Heraren

semea, Olinpoko gailurretik jaurti egin zuen bere aitak hanketan akats larriekin jaio zelako; baina, Eurinome, Neptunoren alaba eta Tétis jainkosak salbatu zuten tragedia horretatik: esku lanen sekretu guztiak irakatsi zizkioten eta horrela gai izan zen Hefesto gorpil-aulki anfibio bat egiteko. Gertutasun eta laguntza jarrerak ere lantzen bazekiten, beraz, Greziako pertsonaia mitologikoek.

Historian zehar ze jarrera agertu diren ezintasunaren inguruan datu asko dauzkagu. Grezian indar fisikoa eta edertasuna ziren balore nagusiak; horregatik baztertu egiten zituzten edota hil. Espartan ez ziren ametitzen pertsona ezinduek; Taigeto mendiko tontorretik amiltzen zituzten. Asian basoetara eta basamortuetara eramanez eta han lagatzen zituzten. Herbertarrek, oro har, ondo tratatzen zituzten:

Jainkoaren irudiko sortuak baitziren Itun Zaharrak dioenez. Kristautasunarekin agertzen da benetak mugimendu berri bat: elbarriekiko laguntza, begirunea eta integrazioa... Constantino (IV m.K.o.) ospitale gisako batzuk eraiki zituen:

Nosokomioak. Bertan eskaintzen zizkieten aterpea, janaria eta laguntza espiritualak.

Ibilbide luze honetan, hau da, bazterketatik integrazioa, britainiarrek zerikusi handia izan dute; arlo honetan, beste askotan bezala, aitzindariak izan dira. Ludwig Buttman, sendagile alemaniarra, ihes egin behar izan zuen nazien atzaparretatik eta Ingalaterran aurkitu zuen aterpe. Londresko auzo bateko ospitale batean jardun zen 2. gerrate mundialean zaurituta gelditu zirenekin. Kirolaren bitartez, hain zuzen ere, aldatu zituen beren bizitzak esperantza berri bat emanez. Ameslari honen ideari jarraituz, Stoke Mandevillen antolatu ziren lehen joko paralinpikoak 1948an (14 gizon eta 2 andere). 1956an bihurtu ziren nazioartekoak. Beren asmoa izan zen "mundu osoko elbarriak batzea eta kirolaren bitartez itxaropen eta hats berri bat ematea". Aurtengo jokoetan 4.289 atletek parte hartu dute.

Oso gertutik tratatu ditudan paralinpikoak izan dira Aitzol, hasieran aipatu dudana ezkonberria eta Richard Oribe. Aitzolek zenbat aldiz

aipatu didan berarentzat izan duten garrantzia joko hauek. Oriberekin, berriz, kalean egiten dut topo tarteak. Bere irakasle eta nire lankide izana Sto. Tomas Lizeoan Jabier Aymerichek aurkeztu zidan. 17 domina irabazi ditu eta beste batzuk eskuratzeko asmorik badu. Paralisis zerebralarekin jaio zen; nork esangozion hari duela 38 urte bere ezintasuna sendatzeko terapiarekin hasi eta hainbeste dominen jabe izango zela?

Aymerichek dio: "paralinpikoak goi mailako kirolari gisa ikusten hasi gara, eta ez gizajo bezala". Niretzat paralinpiar jokoak biziari kantarik ederrenetarikoa bat da, humanismoari eskaini diezaiokegun himnorik ederrena, ebanjelio huts. Kirolaren balore ederrenak agertzen dira joko horietan: norbere mugak gainditzeko esfortzua, solidaritatea, adiskidetasuna, ekipo lana... Gerrak, gatazkak, ustelkeriak eta abarrak betidanik esistitu dira. Paralinpismoa da gizartearen konkistarik bikainena agian. Minetti paralinpiar atleta itsuaren hitzekin amaitu nahi dut: "ez da ezer ezinezkorik".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

### Ika-Mika

## Galderak

**2**009an hasi nintzen lanean Atezteko proiektuan. Baliabide eskasekin, baina ilusio handiz. Ordugeirik gabe, egutegirik gabe, lan arriskuen prebentzio planik gabe...

Birtatean udalak dirua xahutzen zuen ideia eta proiektu antzuetan. Kamioiaren pisaketa eta GPS sistemak, Zubietako konpostagunea eta bertarako makinak (zenbat milaka euro gutzira Azpiroz jauna?). Guzti hau arazo larrienari (biltzen zen errefuxa kopuruari) aurre egin gabe. Gaur egun errefuxaren arazoa ez da hobetu.

Botatako diru honek sortu zuen

egoerari erantzuteko Udalak bide errazenetik jo zuen: Garbitaniaren sortzea probestu zuten, biltzaileei soldata eta lan maila jaitsi eta urteko lanorduak igotzeko. Bide batez, Azpiroz jaunarentzat oso ongi ordaindutako zentzurik ez zuen postu bat sortu zen. Pentsa zein funtzio garrantzitsua zuen, non ez da ordezkaturik izan alde egin ostean. Ordugeirik gabe eskatu eta aste batean 58 ordu lan egiteari ezetz esateagatik guztiok kaleratzeko planteamendua mahai-gaineratu zitzaion administrazio kontseiluari (oso ezkertiarra eta

demokratikoa...). Batz beste 2012an 100 ordu extra sartuko ditugu baina dirutan kobratzeko aukerarik ez dugu izango. Eta ez dakigu noiz, nola eta zenbat jai egun izango ditugun ordainetan. Lehen kamioi gidari-biltzaileak ginen eta orain biltzaileak soilik. Nork gidatzen ditu kamioiak?

Kostata baina lan arriskuen prebentzio plana lortu dugu. Hala ere bertan aipatzen diren jarduerak toxiko (kantzerra sortzen duten produktuekin kontaktuan egon izan gara), nekagarri eta arriskutsuak egin arren ez dugu dagokiguna kobratzen, gure

lan hitzarmenak hala agintzen badu ere. Udalarentzat lana egiten genduen ere ez genduen kobratzen.

Apirileko Udalbatza batean "langileen eskubideen murrizketen" aurka azaldu ziren Bildu eta Aralar. Hauek ez al dira murrizketak? Ala Madrildik edo Gasteiztik datozenak bakarrik dira murrizketak?

Aurreko udal taldeak egindako gestio txarra langileek ordaintzen dute. Ez al zaizue egoera ezaguna egiten?

Iñigo Villafáfila Eizagirre

# Elkarretaratzeak, karabanak eta kanpaldia, grebaren atarian

Euskal Herriko sindikatu eta gizarte mugimendu ezberdinen ekimenez, greba orokorra deituta zegoen irailaren 26rako. Dena den, grebaren aldeko mobilizazioak askoz lehenago hasi ziren. Aurreko asteko ostiralean, manifestaldia burutu zen herrian eta, larunbatean, Donostian. Aste honetan, auto karabanak aritu dira greba deialdiaren berri ematen.

Greba egunean, herrialde mailako manifestazioa Donostian egitekoa zen. Usurbildarrei, Anoretara joateko deia luzatu zitzairen.

Gehiengo sindikalak eta hainbat gizarte eragilek deituta, beste manifestazio bat egin zen Usurbilen bertan, arratsaldeko 18:00etan frontoitik abiatuta.

## KANPALDIA, ITAYAK DEITUTA

Greba orokorreko hitzordua girotu asmoz, Itaya gazte asanbladak kanpaldi batean parte hartzera deitu zuen. "Espainiako gobernuak martxan jarri dituen murrizketen aurka eta eskubide sozial eta laboralen alde, asteartean hilak 25, frontoian elkartuko gara gaua bertan pasatzeko". 19:00etan elkartzekoak ziren eta "hurrengo egunean, hau da, asteazken goizean, kanpaldia amaitutzat emango dugu eta Donostiako mani-



Irailaren 21ean manifestazio zaratatsua egin zen.

festaziora joango gara trenen", hala zioen Itaya gazte taldeak noaia.com web orrian eskegi zuen oharrak.

## ALKATEAREN BANDOA

Greba orokorrekin bat egitea erabaki zuten udal langileek eta Garbitania Zero Zabor S.M.-k. Ondorioz, honako bandoa plazaratu zuen alkateak aste hasieran: "irailaren 26an ez da hondakin bilketarik egingo. Egun horri dagokion paper eta kartoiak hurrengo asteazkenean egingo da, urriaren 3an. Herritarrei, asteazkenean, irailak 26an, hondakinik atera ez dezaten dei egiten zaie. Eskerrik asko. Mertxe Aizpurua".

## II. Auzolan Topaketak, asteburu honetan Altsasun

Iaz estreinakoz Usurbilen ospatu ziren Auzolan Topaketen bigarren edizioa Altsasun burutuko da asteburu honetan; irailaren 28tik 30era. "Euskal Herriak burujabe, baietz!" aldarripean, alor desberdinetako solasaldi eta mahai inguruak, eta parte hartzea bultzatuko duten ekimenak antolatu dituzte. Informazio gehiago: info@auzolan.info edo 679 218 583.

## Espetxera, 2010eko Inauterietan bi lagun erasotu zituena

Epaitu berri dute, 2010eko otsailaren 13an bi lagun labankadaz zauritu zituen erasotzailea. Epailak 15 urteko espetxe zigorra eskatu du berarentzat. Gainera, 22.000 euro ordaindu behar ditzio zauritu bakoitzari. Hedabideen arabera, zigortua egun hartan edanda egon izana aringarritzat jo du epailak. Erasoa, duela bi urteko inauteri festa eguneko lehen orduetan gertatu zen, Txirristra tabernan.

## Ika-Mika

# Denis Itxaso enpresa handien zerbitzura

Zenbait politikarientzat enpresa handien morroi zintzoa izateak bere saria izaten du, eta Gipuzkoan ere bada handi-mandi hauei kartara jaten ematen aritzen denik. Errauste planta da bandejan eskainitako kutixi estimatu horietako bat. Berdin da, papera, plastikoa ala ongarrria izan, den dena erraustu eta zabor toxiko bihurtzea. Berdin da milaka herritarren osasuna kaltetzea. Horren kostea? 400.000.000 euro + interesak + unean uneko Bidegi efektua. "Asko dela? Berdin da, laguntxoentzat da eta herritar inozoek ordainduko dute".

Zoriak nahi izan du, injustizian oinarritutako eredu hori salatzekeo sindikatuek deitutako greba egune-

an, Gipuzkoako herritar eta langileak lana utzi eta kalera irtengo direnean, San Marko mankomunitatean herritarren xoxak enpresa handien zerbitzura jartzen dituen eredu horretarantzko urrats berri bat egiteko batzarra egitea. Ezusteko handirik gertatu ezean, asteazkenean, San Marko mankomunitatearen zuzendaritzan aldaketa gertatuko da. Lehendakari gai berriak, Denis Itxasok, bere asmoen berri aurreratu du dagoeneko. Eta zein dira iragarritako bere helburuak? Gaikako bilketa hobetzea? Ez! Hondakinaren sorreran murrizketa eragitea? Ez! Herritarren osasuna tratamendu toxiko, garesti eta kutsakorretatik

babestea? Ez! Denis Itxasok bere ahalegina gaikako bilketa maila hobetzeko saioak oztopatzerara eta erraustean plantaren proiektua berpiztera bideratuko du. Zer zentzu dauka erraustea berpiztu nahi izateak horrek 200.000.000 euro gehiagoko zama ekarriko badu? Gutxi batzuk guztion kontura bapo bizitzeko erai ki duten eredu honen aldeko eskerrol lana egitera doaz, Denis eta bere babesleak Greba egunean.

Europako Batzordearen materialen efizientziarako bide orriak, Europako Parlamentuko maiatzeko ebazpenak eta krisi honi irtenbidea emateko erai ki behar den gizarte ereduak oso bestelako norabidea erakusten

digute. Materialen kudeaketa arrazionalizatzeko garaia da, iraunkortasuna gure ekonomian txertatzeko garaia. XXI. mendean ezin dugu baliabideak eta dirua etengabe xahutzen, eta era berean gure osasuna eta ingurumena kaltetzen segi.

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko plan eguneratuak bide onetiki jotzen du. Aurrekontua erdira gutxitu eta tratamendu toxikoak baztertu dira. Ez dira hauek enpresa handiei 200.000.000 euro oparitzeko garaiak. Herritarrok behar ditugu. Gipuzkoak Zero zabor lurralde izateko bidean aurrera segitu behar du.

# BEZ igoerarekin, kezka nagusi da merkatarien artean

**E**spainiako Gobernuak onarturiko BEZ igoera indarrean da hilabete hasieratik. Udan zehar hainbatetan iragartzen aritu diren hainbat produkturen garestitzea gauzatu da. Aipatu zerga %13raino igo da kasu batzuetan. Eta horrek guztiak noski, poltsikoari zorrotzago begiratzera bultzatu du bat baino gehiago. Lehendik ere nahiko murrizketa ez eta, neurri berri hau "etxeko" ekonomian eragiten hasia da. Bezeroak, erosleak dituzten saltokiek ere eragina pairatu dute, arlo bakoitzean, saltoki bakoitzean desberdin halere.



1- Zer modutan eragin dizu BEZ igoerak?

2- Zein neurritan eragin dizu azken urteotako krisialdi ekonomikoak?



**Beatriz  
Azaldegia**

Lizardi  
liburu-denda

**1.** Eskola materialak lehen %18ko BEZa zuen, orain %21era igo dute. Testu liburua eta irakurtzeko liburuetan ez da igoerarik izan. Hala ere, momentuz BEZ ez dugu igo gure produktuetan. Oraingo kanpainarako dugun materiala lehengo BEZ-arekin dugu. Aurrerago ikusi behar.

**2.** Nabaritu da. Salgai ditugun gure produktuetako batzuk ez dira oinarritzakoak, behar beharrezkoak eta hor bai, krisia nabaritu da.



**Ines  
Kamino**

N. I.  
ile apaindegia

**1.** Gure kasuan, dena %13a igo da, %8tik %21era. Egoera hau gaitzeko prezioak igo behar dira, guretzat igoera hau ez baita jasangarria. Igoera honek leku onera ez gaitu eramango. Ezkontzak eta tarteko, irailean ez dugu nabaritu. Hurrengo hilabeteak gogorragoak izango dira.

**2.** Eragina izan duela nabaritu da. Bezeroak ile apaindegira etortzeko maiztasuna murriztu da. Egoera horren aurrean, bezeroari gure apustua kalitatea eta profesionaltasuna eskaintzea da.



**Ana  
Perez**

Usurbil  
optika

**1.** Hasieran beldurra genuen, igoera dezentekoa izango zela espero genuelako. Baina azkenean igoera bi puntukoa izanda, lasaiago gaude. Guk asimilatuko dugu egoera hau, bezeroei ez diegu prezioa igoko. Lasai hartu dugu egoera.

**2.** Egia esan, nahiko ondo gaude. Jendea etortzen da aurrekontu gehiago edo zerbait merkeagoa eskatzera. Egoera larri honetan, denda asko ixten direla ikusita, gu lan dezentekin gaude. Kontratazio berri bat egin genuen iaz, pozik. Halere kezkatuta, ez dakigulako zer gertatuko den.

**TXAPELDUN  
TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurrea 2, 943 11 82 53

**Okindegia-Gozotegia**  
**LABE-GOXO**

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teilatuak eta fatxadak  
**943 37 38 79 - 620 80 01 86**  
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

# Urko Redondo, *Gure bide galduak* antzezlaneko aktorea “70etako ilusioaz hitz egin nahi genuen”

Oraindik ez dakizula zer egin larunbatean? Joan antzezlan hau ikustera. 20:15ean Sutegin. Ez duzula antzerki taldea ezagutzen? Berdin dio. Joan. Ez galdu aukera. Luzaroan gordeko duzu oroitzapena.

**E**uskal Herriko historia hurbila da abiapuntua: Franco hil ondorengo lehen urteak, “mundua benetan alda zitekeela pentsatzen zen garaia, hain zuzen”. Une jakin hartan kokatzen dira antzezlan honetako protagonistak. Protagonista maitagarriak, etxera eramateko modukoak. Emanaldi piloak eskaini dute Euskal Herrian barrera, beraz, sasoirik onenean iritsiko dira Sutegira.

**70eko hamarkadan ume batzuk izango zineten zuek.**

**Urko Redondo.** Taldekide batzuk jaio ere ez ziren egin oraindik... Errenterialdekoak gara eta urte haietako mugimenduak oihartzuna izan du luzaroan. Oso presente sentitu izan dugu betidanik. Gu txikiak ginenean ere, oraindik mugimendu handia zegoen sozialki, politikoki, euskararen alde... Bagenuen erreferentzia hori.

Garai hartaz, garai hartako jendeaz, eta garai hartako ilusioaz hitz egin nahi genuen. Orduko ia galdera berdinei erantzun beharrean gabiltzala iruditzen zaigu eta akaso horregatik hasi ginen antzezlan hau prestatzen.

**Urte ilunak izan ziren. Baina zuen antzezlanak badu samurtasunetik ere.**

Antzezlan martxan jartzera koan, pertsonaiak sortu behar dituzu eta pertsonaia horietan oinarritzen da antzezlan. Eta pertsonok, orokorrean, behar jakin batzuk ditugu.

Orduko iluntasunak islatu ditugu baina hau antzerki-jolasaz denez, komizitatea ere badago antzezlan honetan.



“Donostia Antzerki Saria 2012” irabazi du antzezlan honekin Dejabu Panpin Laborategiak.

## URKO REDONDO

**“70etako galdera berdinei erantzun beharrean gabiltzala iruditzen zaigu eta horregatik hasi ginen antzezlan hau prestatzen”**

**Kritikaren zein publikoaren onospena lortu duzue eta hori ez da beti gertatzen.**

Oso gutxitan gertatzen da eta, noski, oso pozik gaude. Antzezlan honekin taldea handi-

tu egin dugu, aktore gehiagorekin ari gara eta musikari batekin. Euskal Herrian antzerkiarekiko eta kulturarekiko bizi dugun desertu honetan, noizbehinka argia ikusi ahal izatea oso pozgarria da; egin duzun lan horrek erantzun on bat izan duela ikustea.

Egitura kulturalak ez dira onenak. Badaude gauzak, baina behar handia dago: entseguetarako, emanaldiak egiteko, produkzioak bideratzeko, ikerkuntza sustatzeko...

## “Kariño berezia diogu Sutegiri”

**IV. Topa Eszenikaren bueltan arituko zarete Usurbilen.**

**Urko Redondo.** Ondo eraikitako egitura definitu batzuk falta dira eta, horregatik, herri bakoitzean gertatu daitekeena oso inportantea da. Oso egokia iruditzen zait Topa Eszenika. Eta lehenik eta behin, Usurbilen bertan bizi diren guztientzat. Partehartzeko aukerak zabaltzen zaizkielako, ez bakarrik ikusle gisa, tailerrak ere

antolatzen dira. Publiko oso ezberdinarentzat diren emanaldiak antolatzen dituzte. Kulturarekiko atxikimenduari lotuta dagoen edozein ekinga oso interesgarria iruditzen zait. Horrelako gehiago egingo balira....

**Ezagutzen duzue Sutegi, ezta?**

Bai, eta *kariño* berezia diogu Sutegiri. Oso gustura egon gara beti. Ea jendea gerturatzen den.

## IV. TOPA ESZENIKA

### IRAILAK 28 OSTRALA

■ 20:15 **Ispilua antzezlan** Sutegin. Sarrera: 3 euro. Iraupena: 50 minutu.

### IRAILAK 29 LARUNBATA

■ 9:00 **Usurbilgo artea ezagutzen**: Zumetaren muralean. Gidatzailea: Uxo Zumeta.

■ 11:00 **Antzerki tailerra Potxoenean**: Idazketa I. Bideratzailea: Galder Perez. Adin guztietara irekia. Matrícula: 4 euro. Izen ematea: txerriki@gmail.com.

■ 15:00 **Gure clown-a ezagutzen**, tailerra Potxoenean. Bideratzailea: May Gorostiaga. Gazte eta helduei zuzendua. Talde mugatua. Iraupena: 3 ordu. Matrícula: 8 euro. Izen-ematea: txerriki@gmail.com

■ 18:00 **Orsai kale antzerkia frontoian**, Malas Compañías taldearen eskutik.

■ 20:15 **“Gure bide galduak”** antzezlan Sutegin. Sarrera egunean bertan, 10 euro. Aldez aurretik, 8 euro Txiribogan.

## Gazte mugimendu berri bat aurkeztuko da ostiralean

**H**erriko zenbait txokotan edota NOAUA!-ko web orrialdean agertu izan da azken asteotan "#guprestzu?" hashtaga, hainbat esaldi kuriosoren amaieran. Honen guztiaren esanahia ostiral honetan, irailaren 28an emango da ezagutzera. Gazte proiektu berri bat aurkeztuko da jendaurrean.

"Gazte izatea adin kontu bat baino gehiago da, errebeldetasunaren ikurra da, aldaketaren ikurra. Gu gara etorkizuna eta guri dagokigu etorkizun hau eraikitzea. Gazteok iraultzarako, amets egiteko, erroko aldaketa burutzeko... dugun gaitasuna probestu eta Euskal Herri aske eta sozialistaren norabidean kokatzeko prest gaude, iraultzaren norabidean kokatuz alegia. Gazteok independentzia gorritz margotuko dugu!!! Eta hone-tarako, denok gara beharrezkoak, ni, zu eta bera; gu, zuek eta haiek!!! Gazte zukugua!!! Norbanatik kolektibora!!! #guprestzu?"



Proiektu berria aurkeztu ondoren, bertso-afaria egingo dute.

### EGITARAUA

**19:00** Trikipoteoa, Aitzagatik abiatuta.  
**20:00** Herrirak deituriko elkarretaraztea.  
**20:30** Proiektu berriaren aurkezpen ekitaldia.  
**21:30** Bertso-afaria, Ane Labaka eta Unai Gaztelumendirekin. Txartelak salgai, 10 eurotan eta irailaren 27ra arte, Aitzagan, Irratin, Txiribogan.

## Akerra Gaztetxea, 25. urteurrenerako prestatzen

**U**rrian mende laurdena beteko du Txokolaldeko Akerra Gaztetxeak. 25. urteurrena ez dute oharkabean pasatzen utzi nahi eta horregatik, azaroan egun osoko jaialdi bat antolatzekotan dira. Hitzordu horri begira, besteak beste, mende laurden honetako argazki bilduma osatu nahi dute. "Urte guzti hauetan bertan izandako jendeari eskaini nahi diegu egun hau, bertan izandako belaunaldien momentuak gogoraraziz. Horretarako, Akerrako 25 urteen argazkien erakusketa bat egingo dugu jai egun berean. Beraz, etxean argazkiak badituzu (edo lagunaren batek, anaiak, osabak...) esker-tuko genuke gurekin harremanetan jartzea aker-ragaztetxea25@gmail.com helbide bidez.



Argazki erakusketa prestatzen hasi dira.

Zuen guztion laguntzarekin argazki erakusketa ederragoa izango baita. Eta segi dezala beste 25 urte! Gora Akerra!", adierazi dute.

## Bekak eskatzeko epea zabalik, Udarregi ikastolan

Urriaren 15era arte aurkez daitezke eskabideak, ikastolako idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 12:00-15:00 artean. Hitzordua jartzeko aldeaz aurretik Udarregira deitu behar da, web orri bidez ohartarazi dutenez. Telefono zenbaki honetara hain zuzen: 943 36 12 16. Aipatu zenbakira deitu behar du baita, gai honi buruzko argibide gehiago jaso nahi duenak.

## Ingelesko mintza praktika taldea osatu nahi du EPA-k

Ingeles maila bat duten herritarrei zuzenduriko mintza praktika ikastaroa antolatu asmo du Usurbilgo EPA-k. "Iaz ingelesez mintza praktika ikastaro bat martxan jarri nahi izan genuen. Ezin izan genuen talde bat osatu eta bertan behera geratu zen. Berrito osatzen saiatuko gara, baina horretarako jendea behar dugu", berri eman dute. Interesdunek ikastaro honetan eta EPA-ren gainerako eskaintzan apuntatu asmo duenak, deitu besterik ez du: 943 376 443, 943 366 608.

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko hezkuntza eskaintza da EPA. DBH-ko titulua eskuratu, hizkuntzetan edo informatikan trebatu, Unibertsitate eta Goi Mailako zikloetarako sarbide probak prestatu... eskaintza zabala dute aukeran.

## Ikasturte hasiera euskaltegian

Urriaren 1ean abiatuko dute ikasturte berria Etumeta AEK euskaltegian. Matrikulazio epeak irekita jarraitzen du; Kale Nagusia 45, behean (Zumarte ondoan). 607 609 379 usurbil@aek.org

**LATAILLADE**

**ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA





# 2012 San praxku

*gehigarri berezia*



# Agiña taldeko arraunlariak,

Lehen aldiz emakumeen arteko lehia ospatuko da, larunbat honetan 15:00etan

**A**ginagarrak historia egitera doaz irailaren 29an. Lehen aldiz, gizonezkoen seigarren trainerila lehiarekin batera, emakumezkoena ere antolatu baitu Jai Batzordeak larunbat arratsaldeko 15:00etatik aurrera. Guztira 12 ontzik parte hartuko dute, seinatxapelketa bakoitzeko, Oriako uretan. Besteak beste, Agiñak talde bana osatu du aurtengoan. Banderei Aginagatik kanpora ihes egiten ez uzteko, gogor lehiatzeko prest dira guztiak. Hitzordurako egun gutxi falta zirela, Orion burutu ohi duten entrenamendu saio baten aurretik, emakumeen taldeko bi arraunlarirekin eta Agiñaren izenean irtengo diren bi ontziatarako patroiarekin bildu da NOAUA!



Argazkian, Agiñako taldea ordezkatzeko duen taldea.

**Sarai Lizaso:**  
"Irabaztea zaila dugu, baina itxura onena ematen saiatuko gara"

**Aginagarrak izan gabe, gehienok duzue beraz, Agiñarekin loturaren bat?**

S. L. Aita edo aitona.

N. A. Txikia bada ere bada loturaren bat.

utzi zuela. Egunotan, entrenatzeko geratzen saiatzen gara.

**Historian lehen aldiz, Agiñaren izenean emakume talde batek parte hartuko du. Hau hala esanda, ardura gehiago da zuentzat? Nola bizi duzue?**

S. L. Ilusioa badugu. Ilusioarekin etorri gara baina ia zer gertatzen den. Badakigu zaila dagoela. Besteak ere kadetek dira. Bateletan ere ondo ibiltzen dira.

N. A. Gu azken momentuan bildu gara. Gutxi entrenatu gara.

**Nola ikusten dituzue arerioak?**

N. A. Nik oso gogor. Baina saiatuko gara.

S. L. Ahal den itxura politena ematea, hori da helburua. Badakigu irabaztea zaila dugula, orduan itxura onena ematen saiatuko gara.

**Kinielarik egiterik bai larunbaterako?**

S. L. Guk, azkena baten bat uztea. Irabaztekotan Getaria-koak, nahiko indartsu dabil-

tza. Eta Oriok ere nahiko talde polita du.

**Erriyoan entrenatzea abantaila da zuentzat?**

S. L. Ez da hainbestekoa. Gu gehienbat ibaian behean ibiltzen gara. Han goian ur gutxiago dago, beti gogorragoa da.

**Luzatu gonbita herritarrei.**

S. L. Animuak beharko ditugula. Giro polita egongo da. Eta nahi badute arraunean hasteko, jendea behar baitugu.

**Neskak arraunean hasteko, zer esan nahi diezue?**

S. L. Kirol jarduera bezala gogorra dela baina azkenean bere satisfakzioa ematen duela. Bai emaitzen aldetik, baita taldeko giroa ere. Azkenean bigarren familia izatea bezala da. Egunero hemen baikaude, beti batera, eta azkenean planak ere batera egiten ditugu. Animatek daitezela. Azkenean engantxatu egiten du.

**Orion albiste pozgarriekin amaitu duzue denboraldia?**

N. A. Oro har Oriok beti izan

**Nola jaso zenuten emakumezkoen lehen estropadetan parte hartzeko proposamena?**

Sarai Lizaso. Emakumeen estropada ere egotea nahi izan dugu beti. Aurten abisatu ziguten, ia talde bat osatuko genuen Agiñaren izenean. Elkarri animatu eta osatu dugu taldea.

**Erraza izan al taldea osatzea?**

Nagore Aparicio. Nik adibidez senidea dut Aginagan. Lehengusua ere barruan dut. Zu joaten bazara ni ere bai esan, eta bata bestea pixka bat animatuta osatu dugu taldea. Erraza ez da izan, baina moldatu gara.

S. L. Agiñaren izenean, Aginagarekin lotura zuten arraunlariak bilatu nahi genituen.

**Entrenamendu saioak nola doaz?**

S. L. Duela bi ostiral hasi ginen. Asteazkenean zehar pixka bat ibili izan gara. Denok biltzeko ere zaila dago. Nik Gasteizen ikasten dut, beste bat Donostian dabil baina ordutegia ez da ondo egokitzen... Halere, moldatu gara.

**Arraun denboraldia bukatu berritan zatozte?**

N. A. Neure kasuan, urteak dira utzi nuela, ikasketekin eta ezin bainuen. Gainerakoei baino gehiago kostatzen ari zait. Saraik adibidez denboraldia oraintxe bukatu du, baina nik ia bost urte daramatzat arraunean aritu gabe. Baina oso gustuko dut. Gainera lehengusua ere bai urtebete

# Orian nagusitzeko gogoz



Markel Eizagirre izango da patroia, neska zein mutilen taldeetan.

da arraun munduko erreferentzia. Iazkoa zerbait egin behar zela konturatzeko urtea izan zen.

Nik uste dut mutilen taldean lortu dela.

S. L. Nesketan, egia esan, bi helburu genituen; Euskotren

Ligan eta Kontxan sartzea. Bakar bat ere ez dugu bete. Hurrengo urtean berriz saiatuko gara.

## Markel Eizagirre, Agiñako taldeen patroia: "Irabaztera aterako gara"

Larunbateko estropadetan, Agiñako bi taldeetako patroia Markel Eizagirre gaztea izango da. Banderaren bat etxeratzeko erronka du, arbaso aginagarrak dituen zarauztarrak. Herritarrak estropadak ikustera joatera animatzen ditu.

**Nola ikusten dituzu mutilen eta nesken taldeak?**

**Markel Eizagirre.** Mutilak ACT-ko taldeetatik datoz. Beti ere kalitate faltarik ez da izango. Banderarako lehian arituko dira, hori espero dugu behintzat. Nesketan ondo pasatzea, gozatzea, ahalik eta estropada onena egitea da helburua. Bandera lortzen bada, ongi etorria izango da.

**Lehen aldiz, emakumeak ere aterako dira.**

**M. E.** Orain arte mutilen estropada bakarrik izan da. Azkenean jaietako estropada da, baina detaileak dira.

Detaile txikiak, baina horiek markatzen dute. EuskoTren ligan dugu adibide onena. Pixkanaka ari dira pausoak ematen, eta badirudi aurrera goazela arlo honetan.

**Agiñak iaz irabazi zuen lehen bandera, nola oroitzen duzu?**

**M. E.** Egia esan oso ona izan zen. Lehen aldia izanda, estropaden ostean harrera egin zen. Gero afaria sagardotegian eta erromeria. Banderarekin egin genuen parranda. Ez ahazteko moduko parranda izan zen.

**Aurtengo kiniela? Banderekin etxeratzeko asmoa duzue?**

**M. E.** Mutiletan bai. Besterik ez du balio. Irabaztera aterako gara. Bigarren egiten badugu, edo hirugarren... Baina helburua irabaztea izango da. Nesketan, lehen esandakoa, lehian gozatzea.

**Agiñako erriyoak estropadetakoz zer berezitasun ditu?**

**M. E.** Marea igotzen ari bada behintzat, erditik igo eta bazterretik jaistea komeni. Eta itsas maila jaisten ari bada, bazterretik igo eta erditik jaistea, korronteak ere lagundu dezan.

**Orion entrenatzen ari zarete. Talde honen denboraldi bukaera nola bizi izan duzu?**

**M. E.** Denboraldi hasieratik markatua zegoen igotzea, ia obligazio bat zen. Eta behintzat lortu da.

**Larunbatean halere, Orio ahaztu eta urdinen alde?**

**M. E.** Bai. Ni gainera zarauztarra naiz eta kolore urdinarekin ohitu samarra nago. Ia eguraldiak laguntzen duen eta giro ederra izango delakoan, animatu dadila jendea Agiñara.

### AGIÑA TALDEAK

#### EMAKUMEEN TALDEA

■ Sarai Lizaso, Itsaso Azkonobietta, Leire Begiristain, Enara Beloki, Nagore Aparicio eta Amaia Arregi.

■ Patroia: Markel Eizagirre.

#### GIZONEZKOEN TALDEA

■ Andoni Peña, Erik Aranburu, Iñaki Errasti, Gorka Puertas, Asier Puertas eta Josu Ostolaza.

■ Patroia: Markel Eizagirre.

### 2 BANDERA JOKOAN

#### EMAKUMEEN ARTEAN

■ Emakumezkoen I. Trainerila Txapelketa. Partaideak: Getari, Orio, San Juan, Hondarribi, Hibaika, Agiña.

#### GIZONEN ARTEAN

■ Gizonezkoen VI. Trainerila Txapelketa. Partaideak: Agiña, Hondarribi, San Juan, Getari, Kaiku, Orio.

### UDALAK DIRUZ LAGUNDUTAKO ESTROPADAK

Aginagako Jai Batzordeak antolatutako estropadak diruz lagunduko ditu Usurbilgo Udalak. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, "ekimen hau sustatze aldera, Agiñako Jai Batzordeak Udaleko Parekidetasun sailetik eta Usurbilgo Kirol patronatutik diru laguntzak jasoko ditu".

Ekimen honen bitartez, "bi helburu nagusi betetzen dira: alde batetik, herrian antolatzen edo sustatzen diren kirol-jarduerak guztietan emakumezkoen parte hartze-ko aukera bermatzea eta bestetik herriko nahiz auzoko jaietan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua lortzea".

# Herri afaria, arraunlariekin batera

**L**arunbat honetako estropadak Aginagak irabaziko dituen edo ez ezin jakin oraindik, baina argi dagoena da urriaren 6a ospatuko dela jaietako herri-afaria frontoian, trainerila txapelketetan parte hartu duten arraunlariekin. Aurtengoan gehiago izango dira gainera, estreinakoz emakumeen estropada txapelketa ere antolatuta baitute. Ohi bezala, otordurako txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dira. Jalisko Band taldekoek pilotalekuan afalostea girotuko dute, eta goizaldeko ordu txikiak Dj Kankarrek Eliza zaharrean.

Asteburuko estropadak, datorrenaren aperitiboa baino ez dira izango. Aginaga San Praixkuetan urriaren 4an murgilduko da erabat, eta bi asteburuetan ospatuko dira ekitaldi guztiak; San Praixku Eguna, haurrena edota oilasko biltzaileena hilaren 4tik 7ra. Eta egun batzuetako etenaldiaren ostean, urriaren 12an Udarregi Sariketako bigarren finalerdia, hilaren 13ko azken ekitaldiekin batera. Eliza zahar edota frontoi inguruetan parrranda girorik ez da faltako asteotan.



Iaz, giroa primerakoa izan zen. Aurtun, urriaren 6an egingo da herri-afaria.

## Urriak 6 larunbata

**21:30 Herri afaria frontoian, arraunlariekin batera.** Ondoren, Jalisko Band

taldearekin dantzaldia. Eta ordu txikietan, Dj Kankar eliza zaharrean.

## Urriaren 5ean, umeen egun handia

Aurtun, San Praixku ondorenean egokitu da Umeen Eguna. Goiz partean, jolasean aritzeko nahi adina aukera izango dute. Eguerdian, "bazkari goxo-goxoa" eman-go zaie. Hori bai, helduek euren ordaindu beharko dute.

Arratsalde partean, puzgarriak ipiniko dituzte. Buruhandiak ere ibiliko dira. Salto eta korrika aritu ondoren, txokolatetan berdinu ahal izango dituzte indarrak.



## Euskal abestiak, Urko Menaia kantariaren eskutik



Eskarmentuko musikaria da Urko Menaia: urteetan aritu izan da Donostiako kaleetan eta taberna zuloetan euskal abestiak eta bere doinu propioak abes-

ten. Iaz, Kanada eta AEBetara joan zen bira egitera, Ipar Amerikako Euskal Etxeek deituta. Urriaren 6an larunbata, iluntzeko 20:00etan arituko da Aginagan.

# TXAPARTEGI

harategia



*bertako haragia*


*ondo pasa jaietan!*

**AGINAGA · 943 361 907**

José María Larburu  
Garraiatzailea

garraioak  
**larburu**  
guarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA

 943 36 17 35 · 656 791 277

*Angulas Mayo, s.l.*

AGINAGAKO ANGULAK  
BEREZKO BIBEROAK



Toki Berri, z/g  
Telf: 943 36 15 94  
Faxa: 943 36 25 73  
AGINAGA

**ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!**



**ETXEBESTE**  
**Jatetxea**

**Eguneko  
bazkariak**

*ondo ibili jaietan !!*

 **943 36 27 40**

# Hiru asteburu bete ekitaldi

## Irailak 29 larunbata

■ **15:30** Aginagako I. Emakumezkoen Trainerila Txapelketa: Getari, Orio, San Juan, Hondarribi, Hibaika, Agiña.  
Aginagako VI. Gizonezkoen Trainerila Txapelketa: Agiña, Hondarribi, San Juan, Getari, Kaiku, Orio. Etorri eta gozatu estropada berezi honetan!! Ezta-riak berotuta ekarri...

## Urriak 4 osteguna SAN PRAIXKU EGUNA

■ **11:00** Meza nagusia bertsolariekin ondoren, herriko jubilatuentzat itzelezko hamaiketako Aginaga Sagardotegian.

■ **18:00** Frontoian giro ezin hobe Ezinduen erakustaldia.

■ **Ondoren**, Emakumeen Pala Txapelketako II. finala. Gizonezkoen X. Pala Txapelketako finala.

## Urriak 5 ostirala UMEEN EGUNA

■ **10:00** Haurren jolasei hasiera.

■ **13:00** Haurrentzako bazkari goxo-goxoa (helduek euren ordaindu beharko dute).

■ **16:30** Puzgarri ezberdinak denontzako. Jarraian txokolate banaketa eta buruhandi bizkor bizkorak.

■ **22:00** Aginagako X. Txapelketako esku pilota finalak.

■ **24:00** Eliza zarrean kontzertuak : Artobixar, Escandalo Publico, Hotzikara. Parranda ederraren ostean eguna argitzen ikustera... TIPI TAPA mendira!!

## Urriak 6 larunbata OILASKO BILTZAILEAK

■ **06:00** Oilasko biltzaileen gosaria.

■ **06.30** Oilasko biltzaileen irteera



Oilasko biltzaileen eguna urriaren 6a izango da.

trikitariez lagundurik.

■ **20:00** Urko Menaia Kantariarekin Euskal abestien emanaldia.

■ **21:30** Herri afaria frontoian, arraunlariekin batera. Animatu!!!

■ **24:00** Jalisko Band-ekin dantzaldia.

■ **03:00** DJ Kankar Eliza zaharrena Mугitu hankak eta gerriak!!!

## Urriak 7 igandea

■ **09:00** Tiro platoa.

■ **18:00** Herrikoen herri kirolak: Agiña VS Lasarte. Zatoz animatzera!!!

■ **Ondoren**, sagardo eta sardin dastaketa bikaina Bitartean, XXX. Toka Txapelketa herrikoia.



## Urriak 12 ostirala

■ **21:00** Bertso afaria Eliza zaharrean: II. Udarregi Sariketa (Finalerdia Bota Puntubaren laguntzarekin): Iban Urdangarin, Unai Gaztelumendi, Ander Lizarralde, Amaia Iturriotz, Nekane Zinkunegi, Miren Artetxe.

■ **Ondoren**, Fan&Go-rekin dantzaldi ederra. Denok dantzaraaaaa!!!

## Urriak 13 larunbata

■ **16:00** XXXII. Mus Txapelketa Herrikoia (izen ematea 15.30ean).

■ **18:00** Gorriti show.

■ **20:00** Herri antzerkia herriko ludotekan. Barre egin nahi baduzue....

■ **00:00** Abiba Dj. Jarraian, DJ Larra Eliza zaharrean eguna argitu arte.

Gozatu aurtengo San Praixkuetaz, eta azaldu urriaren 14an igandea arratsaldeko 17.00etan, dena lehen bezala txukun uzten laguntzera!!



Ondo pasa  
San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.  
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 361 081  
Faxa: 943 365 704  
www.atxega.com  
atxega@atxega.com



ARRATE EGOITZA

AGINAGA  943 36 63 40

**Eiza  
denda**

Ondo pasa  
**SAN PRAIXKUAK!**

Erribera 8, Aginaga  
943 36 12 06



E/S Aginaga  
Guregas- Grupo-Gureak  
N-634 P.K. 7,6 Aginaga



## Sagardotegia



URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
TXOTXETIKI

- Berezitasuna; Sagardotegiko menua, Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
- Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
- Ezkontzetarako jangela egokitua.
- Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

➤ 24 gela eroso eta guztiz ekipatuak: aire girotu eta berogailua, TV, WIFla, bainugela konpletoa...

➤ Diseinu moderno eta funtzionala

➤ Energia berriztagarri (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

➤ Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

## Hotela \* \*



HOTEL BERRIA  
AGINAGANI







Aitor Landaluze

# Hamar urte kartzelan

## HERRIRA-USURBIL

2012-09-28

Azken urte honetan gero eta nabarmenago geratzen ari da presoak espainiar politikarientzat zer diren. Uda honetan ikusi dugun bezala datozen hilabeteetan are eta garbiago ikusiko dugula iruditzen zaigu. Argi geratu da pertsona hauen eskubideak ezabatu zituztela aspaldian. Hainbeste zein ezin dute onartu pertsona hauek gaixotzeko eskubidea ere, izan badutela. Beren legeak kontrakoa esaten dien arren, eskubidez dagokiena ukatzen diete baita behar duten sendabidea ere. Presoak baino bahituak bihurtuz. Edota sakabanaketaren bidez, beren familiekin egoteko duten eskubidea zailtzen eta oztopatzen dute ehunka zein milaka kilometrotara bidaliz, bisita bat istripu larria bihurtzeraino. Ez dira ez, pertsonak beren begietan. Ez dute eskubiderik ez berak ez eta karanbolaz, beren senide zein lagunek ere.

### INONGO KONPONKETARIK ESKAINI GABE

Zer dira beraz? Presoak bai, eta betirako izan beharko dute gainera. Mundu mailan dauden nazioarteko konpromiso oinarrikoenei ere muzin eta batzuetan burla ere eginez. Estrasburgoko agindua bete gabe jarraitzen dute. Espainiar inperioa oro-



Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo da ostiral honetan Mikel Laboa plazan, 20:00etan.

ren gainera. Presoak beraien-tzat, garai batean armadako museoa erakusten zuten ikurrinaren modura, "trofeo de gerratzat" dituzte, dominak beren bularretan zintzilik bailiran. Beren gerra saria, beren soldata, irabazien eta manipulazio guztien justifikazioa. Horregatik patetikoki, diskurtso politiko modura zeinek gehiago atxilotzen duten lehian erortzen dira espainiar bi talde politiko nagusiak arazoari inongo konponketarik eskaini gabe.

Bestetik, presoak beren beldur- rren lasaigarria ere badira. Mendekua politika gisa erabiliz urte-tan puztu duten belduraren dis-

kurtsoa oraindik puzten saiatzen diren arren gero eta hutsagoa geratzen ari zaie, eta lehen elikatzen zituztenak ere, ezin dituzte asetu.

### DENBORAN

#### LUZATUTAKO HUTSUNEAK

Gainera honi beste beldur bat gehitu behar diote, Etorkizuna ize-na duena. "Garaipena" beraiena dela eta izango dela sinesteko presoak behar dituzte, ondorioz presoak eskubiderik gabe eta ziegari- rik ilunenetaraino gordetzera behartuak daude.

Guretzat ordea, beste gauza

askoren artean, presoak hutsu- neak dira. Urte asko luzatutako hutsuneak. Hamar urte kartzelan, ez da kanta soil bat. Zoritxarrez ez da fikzioa ere, errealitate eta historia pertsonala pila bat bai- zik. Bizipen asko biltzen dira den- bora tarte horretan edozeinen- tzat.

Hor dugu Jokin efemeride boro- bil horretara iristen eta guk hemendik Jokin bezala, beste ehunka preso jasaten dituzten etengabeko eskubideen urraket- tak, isolamenduak, dispertsioak, jazarpenak, kondenen luzatzeak, gaixotasunak ... salatuko ditu- gu hilero, azken ostiraletan.

**BENTA TABERNA**  
HANBURGESAK  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
943 36 93 05

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaia.com

# Aldarrikapena, jai giroan

200 lagun elkartu ziren larunbatean, "Euskaraz bizi nahi dut" lelopean egin zen herri lasterketan

**H**aur, gazte eta heldu, korrikan batzuk, bizikleta gainean besteak, aurrerago batzuk, atzerago besteak, baina guztiek euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatu nahi izan zuten larunbat arratsaldean.

Kontseiluak, Usurbilgo Udalak eta hainbat herri eragileek (Etumeta AEK, Itaya, Udarregi Ikastola, Baxurde Txiki, Kantu Taldea, NOAUA!) eginiko deialdiarekin bat egin zuten ia berrehun lagunek. Euskararen aldeko lasterketak, Kiroldegia izan zuen abiapuntu eta helmuga. Kaxkoa eta jaietan murgildua zegoen Santuenea lotu zituen. Bi urtean behin Usurbildik igaro ohi den Korrika ekartzen zuen gogora "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketak. Hain zuzen, lasterketa buruan, auto bat zihoan musika-ekin ekimena girotuz. Atzetik



Kaxkotik abiatu baziren ere, Santueneraino iritsi ziren lasterkariak. Aldameneko QR kodea baliatuz, eskuko telefonoan ikus dezakezu lasterketaren inguruan osatu dugun bideoa.

lasterkariak, "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetekin udalerrisoan euskararen aldarria hedatzen.

Lasterketan izena eman zutenek gainera, amaieran hain-

bat sariren zozketan parte hartzeko aukera izan zuten. Goikoa bezalako antzeko irudiak errepikatu ziren Euskal Herriko beste 60 udalerrri baino gehiagotan.

**ESKUBALOI PARTIDAK**  
2012/09/29, larunbata  
**Kadete mutilak. 11.00h**  
Usurbil KE - Saieko  
**Infantil mutilak. 16.00h**  
Udarregi Usurbil - Saieko

## Kartelera Aginagan

**Aginagako Pala Txapelketa**  
Irailak 27 osteguna, 19:00 (Aginaga)  
Xabier Murua – Josu Errekondo  
Enrike Huizi – Eneko Arregi

Josu Arruti–Imanol Esnaola  
Igor Alkorta–Manuel Galarraga

**Gipuzkoako Txapelketa**  
Irailak 27 osteguna, 21:00 (Aginaga)  
Paleta goma gizonetzkoak 3. maila  
USURBIL 2-DANOK BAT  
(Josu Arruti - Imanol Esnaola)

Paleta goma gizonetzkoak 1. maila  
USURBIL-ERREALA  
(Xabier Errasti - Jon Olaizola)

## Pala Ikastaroa Usurbilen

Emakumei zuzendutako ikastaroan izena emateko epea urriaren 12an amaituko da. Kirol Patro-natuan egin behar da (kuota 50 euro).

## Kartelera Usurbilen

Irailak 30 igandea, 11:00 (Usurbil)  
Eskuz binaka jubenilak, 3. maila  
USURBIL-GAZTELEKU  
(Jokin Irazusta-Mikel Portullarrume)

Eskuz banaka nagusiak  
USURBIL-SORALUZE  
(Julen Gesalaga)

Eskuz binaka nagusi mailan ohorezko maila  
USURBIL-ZAZPI ITURRI  
(Xabier Santxo-Iñigo Altuna)

## GPS ikastaroa

Ordenagailuari aplikatutako GPS ikastaroa antolatuko du Andatzak. Ikastaroa urriaren 16an hasiko da eta Udarregi ikastolako informatika gelan eskainia izango da. Izena emateko epea baina, urriaren 10ean amaituko da. Informazio gehiago: [www.andatza.com](http://www.andatza.com) web orrialdean.

## Kiroldegiari buruzko auditoretza

Inergetika enpresak auditoretza energetiko bat egin berri du Oiardo kiroldegian. Energia eta dirua aurrezteko proposamenak jaso dira auditoretza horretan. Proposamen horien nondik norakoak azalduko dituzte urriaren 1ean astelehena 19:30ean, Oiardo kiroldegian egingo duten agerraldi publikoan.

## Gurasoekin bilera, Futbol Eskolak deituta

Usurbil Futbol Taldeak aditzera eman duenez, "Futbol Eskolako bilera egin behar dugu gurasoekin. Larunbat honetan izango da bilera, hilak 29, goizeko 11:00etan Artzabalen".

# Oiana Blanco: “Konturatzen zara pribilegiatu bat zarela hor egoteagatik”

Munduan barrena ibilia da lehendik ere, baina uztaila amaieran Londonera eginiko joan etorria ez du ahaztuko. Denboraldi berrian ez du Usurbilgo Judo Taldean jarraituko. Esker oneko hitzekin agurtu da.

**M**unduan barrena ibilia da lehendik ere, baina uztaila amaieran Londonera eginiko joan etorria ez du ahaztuko. Berak dioen moduan, inoiz ezin delako jakin berriz halako egoera bat bizitzeko aukerarik izango duen. Oiana Blanco pozik da Olinpiar Jokoetan bizitako esperientziak, baita azken urteotako ibilbideak. Aurrrera begira jarria dago orain.

**Olinpiar Jokoetako helburua zenuen guztia ematea zen. Aurrez espero bezala joan zinen saiora?**

Fisikoki oso ondo sentitu naiz, oso indartsu. Psikologikoki ere bai, gogo askorekin, lasai. Egia esan, neurketa egunean, lehiatzeko urduritasun hori nuen, baina zen txapelketa izateagatik ez gehiago halere. Txapelketa lasai egite horrek, gauzak ondo egiteko eta gozatzeko aukera eman zidan. Azkenean halako bizipen bat, egoera honetan bizitzea, niretzat pozgarria izan da. Egia da bestalde, pena dut emaitzarekin. Sistema dagoen bezala, aurreneko saioan galduta txapelketatik kanpo geratzen zara eta jarraitzeko aukerarik ez duzu. Pena hori bai izan nuen, borroka batekin gelditu beharra. Gauzak hobeto egin daitezkeela? Beti dago zer hobetua. Halere, planteamendua gaur egun berdina izango litzateke. Alde horretatik gusturara nago.

**LAU URTE GERATU GABE Hedabideetan oihartzun handia izan zuen zure parte-hartzeak. Nola barneratzen da hori guztia?**



Pena hartu zuen emaitzarekin, baina bizipen politak ekarri ditu Olinpiar Jokoetatik.

**OIANA BLANCO**  
**“Ahal nuen guztia egin nuen. Borroka guztia berdinduta bukatu genuen. Denbora estra horretan irabazi zidan”**

Ez zara kontziente zer oihartzun duen guzti honek, ze zuhan zaude. Azkenean ez zaizu berdin iristen.

Bueltatzean halere oso on-

do, Orion ere harrera handia egin zidaten.

**Eta abuztuan, oporrek aspaldiko partez?**

Abuztua zeharo deskonektatuta, judoan nabilela ahaztu naiz. Eta egia esan, oso ondo etorri zait. Ze lau urte geratu gabe eman ditut, buruan olinpiadak nituela. Orain pixkanaka berriz martxa hartzen nabil. Oraindik ez dakigu Federazio aldetik nola dagoen planteamendua.

**Lau urteko zikloa itxi duzu. Zein balorazio egingo zenuke?**

Oso positiboa izan da. Gauza onekin geratzen naiz normalean. Bai izan ditudala une baxuagoak edo ez hain onak, baina nik uste hortik aurrera ateratzerakoan asko ikasten dela eta heldutasun handia lortzen dela. Berrito lau urte atzera joanez gero, apustu bera egingo nuke.

**Olinpiadek zer ekarpen egin diote zeure kirol ibilbideari?**

Konturatzen zara, pribilegiatu bat zarela hor egoteagatik, hori bizitzeko aukera izateagatik. Txapelketa bukatu nuenean, eseri eta neure buruari esaten nion, ia Oiana zer lan egin duzu honaino iristeko? Askotan gertatzen zaiguna da, helburu bat duzu, baina gero lortzen duzuean garrantzia kentzen diozu. Jada uste duzu ez dela hain erronka zaila. Baina meritua meritua da, saiatzeko zara horretaz gozatzen ahal duzun guztia eta benetan une bakoitza xurgatzen, sentsazio denak. Ze ez dakizu berriz hor egoteko aukera izango duzun.

## Eskerrik asko!

Batzuek jakingo duzue dagoeneko aurtengo denboraldian ez naizela Usurbilgo Judo Taldean arituko. Urte asko eta oso onak izan dira eta guztioi eskerrak eman beharrean nago. Hau ez da izan kapritxoak erabaki bat eta niretzat ere nahiko gogorra izaten ari da egoera berri honi aurre egitea. Zenbait bizipenen ondorioz, taldea utzi beharrean aurkitzen naiz egoerak hala behartuta.

Ez dut bukatu nahi eskerrak

eman gabe. Batez ere, Joko Olinpikoetara joan aurretik eta baita bueltakoan ere herritar askok azalduzako babesarengatik. Eskerrak orain arteko ibilbidean lortutako guztia posible izateko lagundu didazuen guzti guztioi. Eskerrak judoko taldekide guztiei. Eskerrak Usurbilgo erakunde, elkarte eta herriari beti izan zaretelako nire ibilbidearen testigu. Eskerrak bihotz bihotzez.

Oiana Blanco Etxeberria

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela han-

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dia, 3 logela, egongela, 2 bainu-gela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

Alokairuan atiko berria Usurbilen. 2 terraza handikoa. Altzairu berriz hornitua. 665 720 913.

Landetan (Vieux Boucau) apartamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresiden-

tzian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

Pisua alokatzen da Txaramunto kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun, sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656757073.

3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurran. 661 43 63 53.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokagai Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak. 677 780 680.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

**MOTORRA****salmenta,****garajeak**

Citroen Gran C4 Picasso salgai 2008. urtekoa, 78000km eta oso zaindua. (7 plaza). 695810048

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da, 90 metro. 250 euro. Gazteentzat egokia, Atxegalden. 628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden. Bi solairu, bakoitza 45m, guztira 90 metro. Argia, ura, komuna. 658 716 970.

38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

**Lan eskaintzak**

22 urteko neska usurbildar bat

eskaintzen da haurrak zaintzeko goizetik eguerdirarte. Esperientzia haurrak zaintzen, udajolaseko begirale eta haur hezikuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanerarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan lagun-

**Zorion-agurrak**

**Zorionak Olatz!!**  
Irailaren 22an 9 urte bete dituzu. Ondo pasa duzu eguna! Mainer gurasoak.



**Zoriona Oihan!!**  
Bixkotxo goxo goxo zegoen. Muxu haundi bat, Unax, June, Anje eta Aratzen partetik.



**Zoriona Naia!!**  
Irailaren 28an 5. urtebetetzea, merendola goxo prestatu. Muxu haundi-handi bat etxeko partez!



**Zoriona Ekhi!!**  
Gure morrokok irailaren 26an urte bete egin du. Muxu potolo asko etxeko partetik!



**Zorionak Poxpolin!!**  
Ondo ondo pasa zure urtebetetze eguna. Muxu potolo potolo bat Noa-ren partez... eta amatxo, aiatxo, amoni, amona eta aitonaren partez.

tzeko,... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrereko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserri-ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxe-ko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxe-ko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsaldean edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut espe-

rientzia. 652712099.

### BESTELAKOAK

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen da. 636 462 210.

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Gizonezkoenak, zilar koloreko montura dutenak. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabe-

ak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Ingelesez hitz egin nahi, herritik mugitu gabe? Ingelesezko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. 637 974 994 Itziar

Kotxe kapota bat dohainik. Norbaitek nahiko balu deitu telefo-

no honetara. Tel. 657 714 355.

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztailea eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.

Akordeoa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Atez ateko bulegoa .....	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Eusko Tren .....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Anbulategia .....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Oa botika .....	943 376 076
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Iturralde botika .....	943 363 395
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	DYA .....	943 464 622
Haur Eskola .....	943 374 061	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Emergentziak .....	112
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
KZgunea .....	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Oiarde Kirolegia .....	943 372 498	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Banco Popular Español .....	943 370 411
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	BBVA .....	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia .....	943 372 001	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Telefonica .....	1004
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak irailaren 30etik urriaren 7ra

**Osteguna 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

**Ostirala 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 29** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 30** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astlehena 1** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 2** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 3** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Osteguna 4** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 5** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

**Larunbata 6** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 7** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behea.  
Hernani. Tel.: 943 552 087  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

eraikuntza@euskaltel.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

# Agenda Iraila

## 28 ostirala

- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan, 20:00.
- **"Ispilua" antzezlana**, 20:15ean Sutegin. Sarrera egunean bertan, 3 euro.

## 29 larunbata

- **Kantujira** kalez kale. 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- **IV. Topa Eszenika**, egun osoko egitaraua 7. orrialdean.

## 28-29

- **Jokin Errastiren eskularen erakusketa** Sutegin. Ostiralean: 19:00-21:00. Larunbatean: 12:00-14:00 / 19:00-21:00.

## Bi ikastaro haurrentzat, Antxomolantxakoen eskutik

**A**ginagako Antxomolantxa Elkartek bi ekimen martxan jarri asmo ditu, ikasturte berri honetan. Batetik, ingeles ikastaroa antolatu nahian dabilta, 3-6 eta 7-11 urte arteko haurrentzat. Horretarako ordea, taldeak osatzeko adina jende behar dute.

Bestalde, eskularen egiteko ikastaroa ere antolatu dute, irailaren 29an abiatuko dena. Aginagako ludotekan, eta larunbat goizez izango dira saioak; 10:00-13:30 artean.



Irailaren 29an hasiko da eskularen egiteko ikastaroa.

Ekimen hauen inguruko informazio gehiago eta izen emateko, deitu telefono zenbaki honetara: 610 875 287.

## Urriaren 14an, 1946an jaiotako kinto bazkaria

Urriaren 14rako kinto bazkaria antolatu dute 1946. urtean jaiotakoentzat. Datorren hileko bigarren igandean 14:00ak alderako jarri dute hitzordua, Antxeta jatetxean.

943 363 448 telefono zenbakian edo Laurok liburu dendan eman daiteke izena. "Anima zaitzete!" luzatu dute gonbita kinto bazkari honen antolatzaileek.

## 50. urteurren jaia, 1962an jaiotakoentzat

Bazkaria antolatu dute urriaren 27an, Olarrondo jatetxean. 11:30ean bilduko dira Txapeldun tabernan. Bazkalurretik argazkia aterako dute, eta 14:30ean Olarrondon bazkaria. Bazkalostean dantzaldia izango dute. Bertaratzeko asmoa dutenek, urriaren 13a baino lehen apuntatu behar dute. 80 euro, izen abizenak adieraziz, Kutzako zenbaki honetan: 2101 0040 60 0013053772.

### Datozenak

#### KzGunea arratsalde irekiko dute urrian

Hainbat ikastaro eskainiko dira urrian: sare sozialak 2.0, software libre, google aplikazioak... Urriaren arratsalde irekiko dute, astelehenean ostiralera, 16:00-20:00. Telefonoa: 943 02 36 84.



#### 80 urtekoei omenaldirako txartelak salgai

Omenaldia, urriaren 7an egingo da. 12:00etan meza nagusia ospatuko da eta 14:00etan bazkaritarako bilduko dira Atxega jatetxean.

Gure Pakea elkarteak aurtan 80 urte betetzen dituzten bazkideen omenez antolatu duen bazkariara joateko txartelak erosteko azken eguna da ostegun hau, irailaren 27a. 35 eurotan eskura daitezke elkarteak Artzabalen duen egoitzan.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitarteak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**JE** **JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ikasitza  
eta landu

# euskara bizia



usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea.  
20170-USURBIL

607 609 379 [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)  
[www.munteri.blogspot.com.es](http://www.munteri.blogspot.com.es)



Eskolak



On line



Barnetegiak



Mintza  
praktika



Titulu  
homologatuak



Normalizazio  
planak

**aek**

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

**eman izena**

[www.aek.org](http://www.aek.org)  
902 362 294



# ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,  
noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,  
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

**noaua**

euskararen aterpe



### BAZKIDETZA

IZENA: \_\_\_\_\_ ABIZENAK: \_\_\_\_\_

JAIOTZE DATA: \_\_\_\_\_ JAIOTERRIA: \_\_\_\_\_

N.A.N ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_ HERRIA: \_\_\_\_\_ POSTA KODEA: \_\_\_\_\_

ETXEKO TELEFONOA: \_\_\_\_\_ MUGIKORRA: \_\_\_\_\_

POSTA ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_ K/K ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,